


Haurtzaro Ikastolako Aldizkaria


TXINPART

1996 Abendua-Urtarrila - 6. Zenbakia



GABON GAUEAN...





OIARTZUNGO SHERLOCK HOLMES IZAN NAHI?



Ezagutu al dituzu argazki hauetako piura guztiak?

Hala bada har ezazu paper bat, bertan idatzi izen abizen horiek, eta bidal ezazu eskutitz batean Txinpart-eko helbide honetara:

TXINPART ALDIZKARIA

SHERLOCK HOLMES

Elorrondo z\g

20.180 Oiartzun

Gehien asmatzen dituzten artean OPARI SORPRESA zozketatuko dugu.

Epea urtarrila hasiera izango da.

IRAILA DATOR GURE BILA

IRAILA
DATOR GURE BILA
TRISTE DAGONA
ALAITU DADILA

- 1.- Egun on guztiori
ttiki ta handiak
kendu makarrak eta
ireki begiak

IRAILA...

- 2.- Presta boligrafoa
presta koaderno
ikastaro berria
hastera bait doa.

IRAILA ...

- 3.- Hartu goma, pilota,
soka ta baloia
hori da hori ekarri
duzuen sasoia.

IRAILA ...

- 4.- Aurten izango dugu
jantoki berria
zuen tripak betetzeko
propio jarria.

IRAILA ...

- 5.- Beraz hasi gaitzen
ireki maleta
Eguberriak ere
laster dira eta.

IRAILA ...



ZATOZTE!

Santo Tomas eguna
eguna jatorra,
baina larunbata da
eta entzun, horra!
Haurtzaron ostiralez
festa orokorra:
denontzat izango da
sobrante txistorra.

Gonbidatzen zaitugu
guraso kuttuna,
Santo Tomas bezperan
azoka eguna.
Abere eta barazki
izango duguna,
txerriak aurten ere
behar du laguna.

Talo eta txistorra
porru eta untxi...
erakusketan bertan
hainbat traste bitxi.
Festa honi atea
ezin zaio itxi,
horrelako aukera
kontuz galtzen utzi



ZUZENDARIAREN AGURRA

Izan bitez nire lehen hitzak agur hitzak eta hasi berri dugun ikasturteari indar berriz ekiteko nahiaren adierazgarri.



Zuzendaritza kargua hartu berria dut eta ilusio handiz ekin diot lanari.

Jaione Ugaldebere naiz, iturrioztarra eta 14 urte daramatzat ikastola honetan lanean.

Badut, beraz, arrazoirik Haurtzaro ikastola kanpo eta barne ezagutzeko.

Nire lana, nire asmoa ez da ekimen berri eta ugariak martxan jartzea. Egia esan, Ikastolako Proiektua urtez urte eraberritzen, osatzen eta hornitzen joan baita. Martxan dagoenari eustea litzateke beraz, nire lan eta ardura nagusia eta osatzeko bidean daudenak burutu:

- * Jantoki berriarena: Ikasturte honetan martxan jarri nahiko duguna. 220 haurrek egunero Ikastolan bertan bazkal dezaten.
- * DBH 2. Zikloa: Aurten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen urratsa eman dugu. OHoko 7. eta 8. mailaren orde, DBHko lehen zikloa ezarri dugu. 12-14 urteko ikasleak lehen bi mailatan ari dira, erreformaren bide-tik.
Datozen urtetan, 14-16 urtekoei dagokien DBHko 3. eta 4. mailak jarri behar ditugu martxan.
- * 4 urteko haurrekin joan den ikasturtean hasitako ingeles proiektuarekin ere aurrera joko dugu, txiki-txikitatik hiru hizkuntzekin harremanetan jarritz, hirurak mendera ditzaten etorkizunean.
- * Irakurketa eta idazketaren lanketa:

Gure helburua hauxe da, ikasleak bere gaitasunek osotasunean lantzea, dakienetik abiatuz, erabilpen konbentzional betetara iritsi arte. Metodologia berri honen bideak jorratzen ari gara eta emaitzak laster izango ditugu. Era honetan, 3 urtetan hasiko dira irakurtzen eta idazten.

- * Gure Ikastola Udal Ikastola izan dadin lanean ari gara jo ta ke. Helburua, geuk ere 0-16 urtera gutxienez, dohaineko hezkuntza eskaintzea oiartzuar guztioi. Eta etorkizuenan 16-18ko etapa ere herrian bertan kokatzea ez litzateke kaltegarria izango.

Beraz, guraso, irakasle eta ikasle, badugu zertan aritzea. Irakaskuntzaren munduak etengabeko berrikuntza eskatzen du, eta urterik-urte ilusio berriak pizten ditu gure barne-muinetan. Jarrai diezaiozun bada buruari, bihotzari ere arreta jarritz. Oraindik behintzat, Ikastola bat heziketa euskaldun integrala eskaintzen duen eskola bakarra baikara. Euskal Herriko Eskola, joan den 30 urte hauetan.

Jaione Ugaldebere.

AGUR T' ERDI!

Ezertan hasi baino lehen, EGUBERRION eta URTEBERRION !! Belengo Portaetik, behar bada Olentzeroren laguntzaz, hel dadila zuenganaino bizitzeko poza, argia eta zoriona.

Hautzaro Ikastolakoak gaituzue, gaur zorion eta ditxa guztiak opa dizkizuegunak. Bidenabar, gure Hezkuntza Proiektua hurbildu nahi genizueke, zuek ere iturri onetik gure berri izan dezazuen. Oraingoan ez gatoz, ordea, hitz potoloekin eta proiektu osoaren berri ematera.

1996ko Eguberritako gure lehen harreman honek arina eta xamurra izan nahi luke. Horretarako aski izango duzue esku artean duzuen TXINPART, Ikastolako aldizkariari begiradaxo bat ematea, sutondoko beroan hotzak uxatzen dituzuen bitartean.

Oraingoaz besterik ez. Hemendik aurrera ere gure TXINPARTen irakurle izango zaituztegunak,

**Hemen heldu gerade
berri on batekin ...**

Guraso estimagarriak:

Txinpartek eskaintzen dizkidan lerro hauek aprobetxatuz, zuengana iritsi nahi nuke. Iazko ikasturtean zehar eginiko deialdietan, Ikastolako proiektuetan sinisteko, proiektuan parte hartzea zela onena, esaten genizuen. Eta orain gauza bera diogu.

Hautzaro ikastolako barne funtzionamenduaz jabetzeko eta gure proiektuaren alde egiteko, bertako LAN TALDEETAN, irakasleekin batera, gurasoak ere piskanaka piskanaka sartzea litzateke egokiena.

Lan talde horiek zeintzuk diren?

- Festa komisioa: Sto. Tomasetako feria, Olentzero, lhauteriak...
- Txinpart: Ikastolako aldizkaria.




- Hautzaro: Matrikulazio inguruko ekintzak.
- Ekintza estraeskolarrak: Futbola, saskibaloia, dantza, mendi taldea...

Jadanik baditugu zenbait guraso lan talde hauetan burubelarri sarturik. Jakin ezazue oraindik zenbait lan taldetan leku gehiago badugula eta zuen partehartzea guztiz eskertuko dugula. Ez izan beldurrik eta animo!!!

Beraz, denontzat bada lekua eta zeregina. Lan arina eta gratifikantea izan daiteke gogo onez eta borondatez ekinez gero.

ZUZENDARIA



ONGI ETORRI IKASTOLARA !

Hiru urterekin hasi eta hamasei urte bitartean gure artean izango zaituztegu. Aurrekoek bezala, zuek ere Haurtzaro ikastolaren kimua Oiartzungo herrian errotuko duzue.

Aldizkari honen bidez, bai ikasle, eta bai gurasoei, gure ongietorria luzatu nahi dizuegu.

Honoko hauek dira gure aurtengo txikienak:

Agirrezabala Bereziartua, MIRARI
Aguado Alvarez, NAHIA
Albisu Sanchez, AITOR
Alfonso Aberasturi, GORKA
Arbelaiz Goiria, IKER
Arbelaiz Urretabizkaia, JOKIN
Arbelaiz Urrutia, GAROA
Arroniz Forcada, ASIER
Arruabarrena Goltzarri, ARITZ
Arruti Mitxelena, UNAI

Atxaga Andueza, JON
Azpiroz Iriarte, JOSEBA
Belaunzaran Arruabarrena, XABIER
Berasarte Arozena, AINHOA
Carcedo Cazabon, IMANOL
Cruz Oliden, ESTITXU
De las Heras Berridi, LEIDEN
Dominguez Sanchez, AIDA
Elizondo Iturria, LOREA
Errandonea Sistiaga, ARIANE
Esteba Arbelaiz, GEXAN
Etxeberria Oiartzun, MIREN ELIXABETE
Ezkurdia Irastorza, URKO
Fernandez Duarte, AITOR
Gainza Thalamas, ANE
Garmendia Perez, OIER
Gurrutxaga Acosta, JON
Ibarguren Darceles, GORKA
Iparragirre Lekuona, ARAITZ
Iragorri Arbones, IKER
Jimeno Porras, IÑAKI
Mitxelena Gil, UNAI
Mitxelena Lekuona, JANIRE
Perez de San Roman Uria, IMANOL
Retegi Rekalde, OLATZ
Sanchez Loperena, IRAITZ
Tello Loiarte, LIERNI
Toledo Retegi, IZARO
Ulla Bengoetxea, AINHOA
Urkia Larrañaga, UXUE
Zabala Lekuona, ANDONI
Zabaleta Lopez, EIDER



HAURTZARO INFORMATZEN

IKASTURTEKO HASIERAKO JAIA.

Aurten ere, azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, jai giro lasai eta atsegin batez ikasturte honi hasiera eman genion. "Anfiteatroan" ikasle eta irakasle, baita zenbait guraso ere, bildu ginen. Dugun zuzendari berriak, Jaione Ugaldeberek, animazioz beterik ongi etorria eman zigun. Garrantzi handiko topaketetan bezala, egitarau ofizialari ekin genion: Jaionek, alaitasunez, maila guztiak banan-bana aipatzen zituenean, hauek globo dizdiratsu, alai eta koloretsuak astinduz erantzuten zioten, eta, horrela, aurkezpen guztiak egin ziren. Ondoren, maila guztietatik, hots, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik, lehenik izendatuta zeuden ordezkariak ikasturte honetarako ideiak, asmoak, itxaropenak, gogoak eta betebeharrak plazaratu zituzten. Hura izan zen giroa, hura!!! Gaztetxoek korrika, besteak lotsatuak, zaharrenak fin eta serio agertu ziren; denok mailan sortutako burutazio eta pentsamenduak entzuteko aukera izan genuen.

Egun seinalatu honetarako egindako bertsoak aho batez kantatu genituen gure gorputz eta oinak konpasarekin mugituz. Azken aurreko ekitaldia, bi globo handi aireratzea izan zen, eta, noski, aho bete hotz zerura begira gelditu ginen, ea nora, norantz eta noraino irits zitezkeen pentsatuz. Bukatzeko, ohi den bezalaxe, musika atsegin eta dantzarina jarri zuten. Gusto handiz, dantzari, elkarrizketari eta agurrari ekin genien denok batera, hurrengo egunean beste zerbait egingo ote genuen itxaropenarekin.



AGUSTIN ETA IDOIA


6 urtetan Haurtzaro ikastolaren alde administradore lanetan buru belarri ihardun ondoren, aurtengo ikasturtean utzi egin gaitu Agustin Vitalek, 2 urteko eszedentzia eskatuta. Baina ez zaigu oso urrun joan, ez ikastola eremutik, ez eta gure bihotzetatik ere. Oiarzungo kiroldegian aurkituko duzue lanean beti bezain gogotsu eta fin.

Bitartean, gurean Idoia Asuabarrena ari da Agustinek utzitako hutsunea betetzen.

Beraz gure ikastolaren inguruan biak sarri ikusteko aukera dugu. Argazki hau lekuko.

BEJONDEIALA AGUSTIN ETA ONGI ETO-
RRI IDOIA





HERRIKO AZOKA

Aspaldiko ohiturari jarraituz, duela bi urte, 1994ko azaroaren lehenengo larunbatean hain zuzen, berriro azoka herriko enparantzan ikusteko aukera izan genuen. Hasiera-hasieratik Haurtzaro Ikastolak argi ikusi zuen bertan parte hartu behar zuela eta halaxe izan zen.

Herriko azokan parte hartze horrek helburu nagusi bat zuen: "Ikastolaren presentzia herriko azokan". Gaur egun ere helburu berberakin joaten gara hilabetero azoka horretara, gure ikastolako ordezkariak egon daitezen egun zehatz horretan.

Hasieratik ere argi eduki dugu gure presentzia hori guk egindako lanak erakutsiz gauzatzen dela. Beraz, txandaka-txandaka, maila bakoitzak bere azalpena eraman ohi du azoka horretara. Nolanahi ere, azalpen hori bi modutakoa izan daiteke:

- * Urtean zehar ikasleek gelan egindako lanen erakusketa moduan. Horrela, azoka izan daiteke, eta da, lan horiek plazaratzeko gune egokia.
- * Salmenta antolatuz. Hirugarren BBBko ikasleek, Ikastolako azken urtea dutenez aste beteko ibilaldia antolatzen dute. Hori dela eta, azoka guztietan parte hartzen dute diru pisikat ateratzearren. Beraz, salmenta horretan beraiek izango dute lehentasuna.

Salmentaren inguruan, arau batzuk aurreikusten dira:

- * Ikasleek egindako lanak, jakiak... jarriko dira salmentan.
- * Salneurria, kostoari %25 erantsiko zaio gehienez.

Azoka garaian, ikasleak agertutako lan horretan edota beste ekintzaren batean aritzea oso interesgarria eta motibagarria dela ikusten da.

Azkenik adierazi nahi dizuegu azokan parte hartzea horrela bideratu dugula:

- * Azaroak 16, 3. maila.
- * Urtarrilak 18, 4. maila.
- * Otsailak 1, 6. maila.
- * Martxoak 1, 5. maila.
- * Apirilak 19, 1. eta 2. mailak.
- * Maiatzak 17, DBH 1. maila.
- * Ekainak 7, DBH 2. maila.
- * BBB 3. maila, azoka guztietan.




HAURTZARO INFORMATZEN


GURE JANTOKI BERRIA

Duela 15 urte, Haurtzaro Ikastola jantokiaren zerbitzua eskaintzen hasi zen. Horretarako Madalensoroko jatetxearekin harremanetan jarri ginen eta bertan egokitu genuen gure jantokia. Urte dexente pasa dira bitartean, eta gure nahian beti egon izan da ikastolan bertan jantokia kokatzea. Eta azkenean gure proiektu honi heldu zaio garaia. Bai, halaxe da, aurtengo ikasturtean gure jantokia Ikastolan bertan ikusi ahal izango dugu.

Eta nolakoa izango da gure jantokia? Jakin ezazue jantoki berria ikastolako atzealdeko jolastokiaren alde batean kokaturik egongo dela, Elorrendoko etxeen babesean. Etxe honek barrutik hiru zati izango ditu: hasieran sarrera egongo da eta bertan komunak eta aldagela bat kokatuko ditugu; ondoren zatirik nagusia dator, jantokiarena berarena, eta azkeneko zatian sukaldea.




Eta nolako itxura izango du? Noski, gure ikastolako koloreak errespetatuko dituen estazio antzeko etxea izango da, teilatu urdina izango du eta paretak txuriz eta griszez margoturik egongo dira. Halere, ideia egiteko hara hemen jantokiko plano batzuk:



Beraz, laster bukatuko dira ikastolatik Madalensororainoko joan-etorriak eta prozesio luzeak. Badakizue, sabela nola, burua hala.

HAURTZARO INFORMATZEN



EKINTZA ESTRAESKOLARRAK

Aurten ere hemen gatzokizue eguneroko klaseetatik aparte ikastolak antolatzen dituen ekintzen berri agertu nahiean. Lehen lehenik esan, eskola jarduna osatuz planteiatzen ditugula eta ahalik eta zabalena eta aberatsena den eskaintza egin nahi dugula. Orain arte, azken urteetan eskaini izan dena indartu eta osatu asmoz gabilta une hauetan lanean.

Aurten eskaini nahi dugunaren aurrerapen bat aurkeztu nahi dizuegu, nondik nora joango diren beste ekintzak ere agertuz, gero zuek aukerak eta plangintzak egiten joan zaitezten.

Hauek dira aurtengorako osatu nahi ditugun bi blokeak:

KIROL EKINTZAK	KULTUR EKINTZAK
Saskibaloia	Euskal dantzak
Futbola	Txistua
Atletismoa	Bertsoeskola
Pilota	Trikitixa /Panderoa
Igeriketa	Plastika
Sambo / kenpo kay	Antzerkigintza
	Dantza garaikidea

Guztia koordinatzeko Talde bat osatua dago. Esan beharrik ez dago EKINTZA ESTRAESKOLARRETARAKO TALDE hau bideratu daitezkeen, bai ikasleentzat, gurasoentzat, ikasle ohientzat..., proiektu eta iradokizunetara (sujerentzietara) irekia dagoela.

Iaz gurasoei inkesta bat bidali genien gai hau dela eta. Inkesta honen emaitza oso baikorra izan da. Orokorrean aipatu dutena izan da gus-tora daudela tailer hauekin eta gurasoen parte hartzea ere irudikatua izan da aurkeztu dituzten proposamenetan. Aipatu baita ere proposamen gehienak orniketa inguruan izan direla.

AURTENGO ASMOA

Bi helburu nagusi markatu ditugu hiru hilabete honetarako:

1.- Iazko ikastaroak, arrakasta izan zutela ikusirik, berriro martxan jarri.

Jaso dugun erantzuna ikastaro hauetan baikorra izan da eta aurreko urteanadina pertsona bildu dira.

2.- D.B.H.-rako ekintza osagarri berriak sortzea. Hiruhilabete honetan dena plangintzatzen eta zirribirroan ditugun ideia eta asmo guztiak gauzatzen saiatu gara. Gure asmoa da urtarritatik aurrera, ideia hauek martxan jartzea.

2 - 3 esparruetan ari gara:

Dantza libre, garaikidea.

Marrazketa

Argazkigintza...

EKINTZA OSAGARRIETARAKO TALDEA

4. MAILAKOAK BARATZERA


Laugarren mailakook burutu dugu (urriak 2, 3, eta 4an) ikasturte honetako ibilaldi-ekitalde nagusia. Gernika inguruan dagoen Baratz Borda Eskolara joan gara aurtengoan ere.

Hiru egun zoragarri bizitu ditugu jolastu eta lana eginez.

Monitore desberdinekin tailerretan landu ahal izan duguna hau izan da:

- Loragintza
- Animalien zainketa (ikuilua)
- Baratz
- Erlagintza
- Transformakuntza tailerra (ogia, kandelak...)

Horretaz gain denbora librean jolastu eta zaldi gaineen ibiliz DISFRUTATU. Nork ez du ondo pasa Baratzan?



HAURTZARO INFORMATZEN

5. MAILA BERTIZEKO PARKEAN



5. maila urriaren 9an, asteazkena, "Ingurunea" arloaren barruan ekosistema gaia aztertzen ari ginea Bertiza joan ginen bertako basoa eta parke naturala aztertzeraz. Bertiz Nafarroan dago, Bertiz-arana bailaran, Oieregi herrian, eta Oiartzundik 60 bat kilometroa.

Bertizera hamar t'erdietan iritsi ginen eta hamai-kak arte gosaria jateko denbora utzi ziguten. Hamai-kean Bertiza sartu eta bertan lau monitorea zeuden gure zain; hamabosteko lau taldetan banatu ondoren basora joan ginen, talde bakoitza alde desberdin batetik. Jolasen bitartez, basoan zeuden zuhaitz batzuen hostoak, fruituak eta animalia batzuen aztarnak aztertu genituen eta baita gezi hauen arteko lokera edo harremanak ere.



Gero parke Naturalera gindoazela baserri bat ikusi genuen eta monitorea esan zigun txondorrak egiten zituen gizon batena zela. Parke Naturalera joan eta han zuhaitz asko ikusi genituen. Gehienak Amerika eta Asiako zuhaitzak ziren, Bertizko azken nagusiak, Don Pedro Cigak, bere bidaietatik ekarritako zuhaitzak. Eta monitorea esan zigun zuhaitz bat hiru mila urte bizi zitekeela, adibidez sekuella (amerikarra). Sekuella hau parkeko zuhaitz haundiena da.

Parkea ikusi ondoren, interpretazio zentrorra joan ginen eta han bideo bat ikusi genuen Bertizko parke naturalari buruz. Aurrena parkearen kokapena ikusi genuen (Lurra planeta, Europa, Espainia, E. Herria, Nafarroa, Bertiz-arana eta Oieregi herria) eta ondoren bertako historia eta ezaugarri klimatologikoak, landareak, animaliak eta abar ikusi genituen.

Hau guztia ordubiak aldera bukatu genuen, eta jarraian, bazkaldu ondoren, etxera etorri ginen.

Anima zaitetze Bertiz ezagutzera. Oso polita da eta asko gustatuko zaizue.

Aurreko azaroak 24an, igandez, 6. mailako ikasle batzuk Donostiko "Radio Diario"n antolatutako irratiaio batean parte hartu zuten. Irratiaoaren gaia "Oiartzun" zen. Hori zela eta, aurreko ikasturtean gaztelerako saioetan egindako txosten turistikoak aurkeztu ziren.

Bestalde, ez genuke idatzitxo hau bukatu nahi, hiru hilabete honetan gazteleran burutu duten lana aipatu gabe: Asmakizunei buruzko aldizkari monografiko bat. Bertan kronologi interesgarri bat eta asmatutako berri barregarriak daude. Hona hemen adibide pare bat:

1876. Alexander Graham Bell, inventor, físico y profesor de sordomudos estadounidense, inventó el teléfono (aparato que sirve para comunicarse a grandes distancias).

Trataba de encontrar un sistema de audición para los sordomudos cuando logró la invención del teléfono.

Inventado el arribalunacohete por un famoso estrefugués

El 22,2 de Mastro del año Q. E. T. Elías Tronauta, astrónomo estrefugués, inventó el arribalunacohete.

El arribalunacohete es un invento que sirve para traspasar el espacio camino a la luna.

Según un cercano colaborador, ante la insoportable presencia de ciertos pequeños a su alrededor, Elías Tronauta inventó el arribalunacohete para enviarlos todos muy lejos.

Hiru aldizkari argitaratu dituzte:


¡OLÉ! Revista monográfica sobre inventos e inventores.

¡QUÉ INVENTOS! Revista monográfica sobre inventos e inventores.

¡NO TE LO PIERDAS! Revista monográfica sobre inventos e inventores.

Zuetako norbaitek aldizkari hauetako bat eskuratu nahiko balu, idatz dezala Txinparteko Buzoira eskaera eginez. Helbidea hau da:

TXINPART ALDIZKARIA
ASMAKIZUNEN ALDIZKARIA
Elorrondo z\g
20.180 Oiartzun



DBH MARTXAN DAGOENeko!!

Ikastolan 12 urtetik 16 urtetara doan etapa berriari hasiera eman diogu ikasturte honetan. Lehen hezkuntzaren jarraipena suposatzen duen derrigorrezko maila dela ez dugu ahaztu behar, nahiz eta beste helburu desberdinei erantzuteko etapa izan. DBHn sartzen den edozein ikasleren adinak dituen ezaugarri bereziak kontutan harturik, etapa honetan, beste askoren artean, helburu hauetara iritsi nahi da:

- * Bakoitzaren izaera landu.
- * Gizarte mailan mugitzen erakutsi.
- * Kultura orokor eta oinarritzko bat lortzen lagundu.
- * Bizitzarako eta goi mailako ikasketetarako prestatu.

Ikasle batzuentzat hau bukaerakoa izango da, DBH ondoren, nahi izanez gero, lan mundura hurbiltzeko beste bide batzuk aukera ditzaketelako.

Besteentzat, berriz, Unibertsitatetarako edota Goi mailako Lanbide Heziketarako bere pausoak zuzendutakoak dituztelako, Batxillergora iritsi baino lehen beste etapa bat gehiago izango da.

Etapia hau bi ziklotan banatzen da eta hau egiteko garaian, beste arrazoi askoren artean, honako hauek kontsideratu dira garrantzitsuenak:

- * DBH fisiologikoki eta psikologikoki gaztea aldatzen dagoen adinetan kokatzen denez, gazteen heziketa eta bakoitzaren izaera erakitzeko beharrei hobeto erantzutea.
- * Gaitasun, nahi eta motibazioen desberdintasun progresiboa, aldabidezko hazkunderaren erritmoa eta irakaskuntza-ikasketa prozesuaren arteko egokitzapena erraztea.

Hau guztia kontutan harturik, bi berezitasun eduki nahi lirateke

- * Derrigorrezko Hezkuntzak beharrezkoa duen orokortasunaren barnean beste arlo batzuk integra-

tu dira etapa honetan. Agian berrikuntza nabariena teknologia arlo berria datza; orain arte ezertarako agertzen ez zena orain denen ahotan dago. Horretarako prestatu den laborategi-tailerrean proiektu ezberdinek, brikolageek, tresna berri eta ohikoek izango dute bere lekua eta ikasleek esperientziaz lorrean gauzen zergatia, arrazoiak eta ingurunean



aurki ditzaketen edozein gauzaren "bonbila" piztuko duen irakaslea izango dute.

* Baina honekin batera, gero eta zabalagoa izan behar duen aniztasunari erantzun behar zaio. Horregatik, interes pertsonal desberdinei erantzun ahal izateko, hezkuntza bide desberdinak eskainiko dira etapa honetan. Hau horrela izan dadin, aukerako gaiak azaltzen zaizkigu proiektu curricularrean. Pixkanaka-pixkanaka gai hauek zabaltzen joango dira eta ikasleek komeni zaizkienak aukeratzeko posibilitatea izango dute. Une honetan ikastolak Bigarren Hizkuntza Modernoari ireki dizkio ateak, hain zuzen ere frantsesari. Gaur egun badira gure artean agurak, zenbakiak eta abestiak frantsesez dakizkiten ikasleak. Baina, badira beste batzuk bestelako nahiak asetu nahi dituztenak eta ikasle hauei erantzuteko asmoz, ikastolak beste bi aukera aurkeztzen ditu: Zientzi tailerra eta Hizkuntz tailerra. Hauetako bat aukeratu duen ikasleak bere gogozko gaiari heldu diezaioke eta nahi duen adina sakontzeko posibilitatea dauka.

HAURTZARO INFORMATZEN

DBHKO 1. ETA 2. MAILAKOAK ETBN

Urriaren batean "Rompecabezotas" deritzan telebista saiorako gonbitea jaso genuen. Gonbidapena ilusio handiz onartu genuen eta egun horretako animatzailerak geu izan ginen. Ikusleak entzungai izan zituen gure oihu, txalo, txistu eta algarak. Bi saio grabatu zituzten jarraian eta bertan, trikimailu guztien lekuko izan ginen.

Balorazio bat egi-
tearren arratsalde
atsegina eta desber-
dina izateaz gain,

esperientzia berria bizitzeko aukera izan genuela esango genuke.


Handik hamabost egunera grabatutakoa gure etxeetako telebistetan ikusteko aukera izan genuen.

IZOTZ IRRISTAKETA

Urtero egiten dugun irteera dugu hau. Aurten, DBHko 2. mailakoen eta BBBko lehen mailakoen txanda izan da.

Ikastolatik abiatu eta bizi-bizi Arraguaraino joan "Topoa" hartu eta kantari eta jola-sean Donostiaraino iritsi gara. Anoetako estadioari kaixo esan eta Txuri Urdineko Jauregian sartu. Hemen askatzen dira urduritasun, indar, gelan antolatutako planak... eta gustora barre egiten dugu haren ipurdikoaz, honen txokeaz, hango ezusteko besarkadaz.


Aurten ere, eta gehienetan gertatzen den bezala, ondo ibili gara eta ohiko golpe eta babetatik aparte ez da ezer gertatu. Eta golpe gehienak, bertako monitoreari zor dizkiogu. 10 edo 15 minututan zenbait ariketa egiteko proposatu digu: hanka



bakarrean ibili, saltoak, arrastaka bata bestea eraman, atzeraka irristatu... eta gure burua probatzen ari garen bitartean etortzen dira zartako ederrenak.

Amaieran, hankeko minez, nekaturik... eta gustora amak prestatutako bokadiloari ekiten diogu.





KONTSUMERISMOAN HEZI

Gure gizarteak produktuak kontsumitze-tik produktuen kontsumismora dagoen urratsa aspaldi emana duen arren, Eguberriak gainera datozkigun egun hauetan inoiz baino gehiago areagotzen dugun arazoa dela oroitarazi behar diogu jendeari. Oroitarazi eta "kontsumerismo" deritzan jarrera berri horretara aldatzeko kontzientziatu. Izan ere, zenbat eta gehiago edukitzea da gaur egun dugun helburu ia bakarra, zer garen edo nortasunari garrantzirik eman gabe. Honek gizarteari dakarzkion ondorio kaltegarriak aurre egiteko garaia iritsi da. Kontsumerismoan hezi behar ditugu gure seme-alabak, kontsumorako jarrera kritiko, erresponsable eta solidarioak garatu eta erabakiak arduraz har ditzaten.

Honetaz kontzientzia hartzeko, Gabonetan hegoaldeko euskaldunok dirua nola xahutzen dugun erakusten dizkiguten datuak aztertzea besterik ez dago:

- Loteria eta beherapenetan gastatzen duguna kontutan hartu gabe, orohar familia batek 80.000 pzta inguru botatzen du opari eta jaki-edarietan.
- Ehun familietatik batek bakarrik aitortzen du gainerako beste egunetan bezala gastatzen duela Eguberrietan, nahiz eta soldata estrarik kobratzen ez duten familiak % 24 izan.
- Hala ere, badirudi krisi garaian gauden honetan, zerbaitetan bederen ari garela diru kontuei pixkat gehiago



erreparatzen; gero eta gehiago dira Eguberrietako produktu tipikoak egun berezi hauetan garestitu aurretik konjelatzeko erosten dituztenak; familien % 23a hain zuzen.

- Beste batzuentzat, ordea, "krisi" hitzak zentzua galtzen du Gabonetan: familien % 50ak Olentzerotan egiten ditu opariak eta %70ak Erregetan. Beraz, %20ak 2 egunetan.
- Ia inork ez ditu galtzen abenduaren 24, 25 30 eta 31ko ospakizunak. Ondorioz, jaki-edarietan 40.000 pzta inguru gastatzen dira. Hauetako asko luxuzko gai kontsideratzen dira, baina familien % 6arentzat ezinbesteko produktu bihurtu dira bixigua, legatza, arkumea... bezalakoak

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN



- Oparietan batezbeste 35.000 pzta. joaten dira familia bakoitzean; haue-
tatik 3/4ak helduentzako oparietan
eta beste 1/4a bakarrik jostailuetan.
- Honetaz guztiaz gain, "kotilloi" edo
festatan eta joan-etorrietan 6.000
pzta. inguru gastatzen da.


Garaiak erostera eta kontsumitzera dei-
tzen gaitu, eta muzin egiten diogu Egube-
rietako berezko zentzuari. Egun hauetan,
erosketa eta prestaketak direla-eta, fami-
liarekin edo lagunartean pasatzeko denbo-
ra lau otordutara mugatzen dugu. Datuen
arabera, oso argi dago Gabonetan jendea
ohi baino gutxiago irteten dela mendira,
ziner... Hiriburuetako kale eta dendak,
berriz, jendez gainezka egon ohi dira.

Oparietako irudi ederrez, behar duguna
baino gehiago kontsumitzera bultzatzen gai-
tuzte, honek gure gizarte eta ingurugiroari
ekar diezazkiokeen kalteez ohartu gabe:
lehengaien xahutzea, ingurugiroarekiko era-
soak, desberdintasun sozialen areagotzea,
kontsumitzaileen eskubideen errespeturik
eza... Izan ere, nork ez du inoiz bere burua
iruzurtua sentitu pakete bat ireki eta tele-
bistan iragarritako opari itzela esku artean
txikiagotu, kaxkartu... egin zaiola ikustean?
Edota merkealditan erositako arropa 2 egu-

netara hondatu eta erreklamazio edo alda-
ketarik onartzen ez diotenean? Ziria sar-
tzen digute, engainatu, manipulatu... Ez
dakigu geure erosketak modu koherente
eta arduratsuan egiten; ez dakigu manipu-
laizoarekiko jarrera kritikorik hartzen... edo
ez dugu nahi, ez zaigu axola; ez gara eran-
tzule eta solidario. Helduak gara adinez,
baina ez ekintzez. Ondorioz, nola jokatu-
ko dute gure seme-alabek?

Azken 15 urteetan Autonomi Elkarte
desberdinetan kontsumitzailearen hezike-
tarako proiektu interesgarriak egituratzen
hasi dira eskoletarako. Honek baliabide
egokiak eskaini behar ditu, haurraren
kontsumerismorako jarrera garatzeko, hau
da, kanpoko informazioa kritikoki iragazi
edo filtratu ondoren, bere kabuz erabaki
aske, erresponsable, solidario eta konzien-





tea hartzen irakatsi behar dio. Ingurugiroa-ri kalterik egin gabe, bizitza-kalitatea hobetzeko ahal den gizarte zuzen, erantzule eta solidarioena eraikitzeko kontzeptu, prozedura eta jarrerazko edukin multzoa beregatatzen erakutsi behar zaio.

Baina hori ez da arlo bakar batean landu beharrekoa; zeharlerroetako bat da, jarrera gehienak bezala, arlo guztietatik bideratu beharrekoa.

Logse lege berriak kontsumerismoaren heziketa 7 zeharlerroetako bat kontsideratzen duenez, datozen urteetarako eskoletako Hezkuntz Proiektuetan sartuta dago.

Honen inguruan proiektu, oinarri metodologiko eta unitate didaktiko desberdinak finkatuz doaz.


Batetik, kontsumitzaileen babeserako instituzioek eratutako zenbait proiektu garatzen dira, eta, bestetik, erreformaren ildotik sortutako testu liburu berrietako uni-

tate didaktikoetan ere, zeharlerro modura ageri da lortu beharreko jarrera bat gehiago gisa.

Zenbait gune eztabaidagarriren inguruan antolatutako hainbat edukin lantzen dira: publizitatea, elikadura, etxebizitza, natur baliabideak, erosketak, osasuna, aisialdia..., eta hauen baitan, jarrerak ardatz hartuta, kurrikulum edukin batzuk egituratu dituzte.

Hauen lanketarako, ikasleei informazioa emateaz gain, informazio hori aztertzen, kritikatzeko, filtratzen... erakutsi behar zaie kontsumitzaile arduratsua edo erantzulea heitzeko. Haurrek jarrera manikeistetatik ihes egin eta nork bere aukerak modu koherente eta askean egiteko gaitasuna lortu behar dute.

Honetaz gain, ikastetxeak eta eskola-komunitate osoak (ikasle, irakasle, gurasoek) eredugarri izan behar du eguneroko bizitzan eta koherente izan nahi badu, birziklatu, berrerabili, aztertu, kritikatu, kontzientzia hartu, solidario izan... bezalako aditzen ekintzak ere burutu beharko ditu. Kontsumerismo giroa ingurune osoan bizitu behar du umeak.



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

OLENTZERO

Olentzaro - olentzero

Olen - aro

Denboraldi bat adierazten du, garai bat. Urteko egunik motzena.

Jentilek bi jai nagusi ospatzen zituzten, eta biak EGUZKIAREKIN lotuak.

Bat, urteko **egunik motzena**. Eguzkiak biderik motzena egiten duen eguna. Eguzkiak garaierarik ttikiena hartzen duen eguna. Abenduaren 24a, **OLENTZERO** eguna.

Gaur egun egunik motzena abenduaren 24a den? Historian zehar kalendarioek aldaketa ugari izan dituzte.


Bi, urteko **egunik luzeena**. Ekiak bidaia-rik luzeena egiten duen eguna edo garaia. Baliteke, noizbait egun edo garai hori **EKAINTZARO** izenez ezagutzea, baina hori ezin dugu ziurtatu. Nolanahi ere, egun hori ekainaren 24 izan zitekeen (San Juan eguna).

Bi festa hauek, eguzkiari begira ospatzen ziren, Eguzki jaunari zuzenduak eta eskainiak.

Olentzero egunean, sukaldeko sutondoan, Olentzerok enborra pizten zuen gauean eta bertan Olentzero gaueko afaria prestatu.

Garai batean berez denboraldi edo egun bat zena, denboraren poderioz, gizakiak pertsonifikatu egin du Olentzero. Horrela, gaur egun, Olentzero pertsonaje bat dugu gure artean. Eta gainera, leku bakoitzean era ezberdinean egokitu du herriak. Oiar-tzunen, **IKAZKILEA**, Donostian **ARRAN-TZALEA** ... Bakoitzak bere beharretara eta izaerara egokitu du Olentzero.

Kristautasuna heldu zenean, Elizak Jentilen denboretako ospakizun hauen egunei, nolabait eutsi egin nahi izan zien. Horretarako, Olentzerotan Jesusen jaiotzaren ospakizuna ipini zuen. Eta ez Jesus abenduaren 24an edo 25ean jaio zelako.



Urtearen egunik luzeenaren ospakizunetan, berriz, Elizak San Juan eguna ipini zuen, hemen ere Jentilen egun seinatua gordez.

Eguberri - Urte berri

Olentzero - Urte zahar

Beraz, horrela beharko luke. Urte zaharra egunik motzenarekin bukatu, Olentzero egunean, alegia. Eta hurrengo egunean, urte berria hasi, Eguberri egunean. Baina lehen aipatu dugu, kalendarioak tartean jasandako erreforma eta aldaketak.

Olentzero eguneko afaria:

- Zurruputuna, bakailo hezurrekin.
- Konpota.

Opariak:

- Europa zentrolean, San Nikolas egunean -Noel-
- Espanian, Errege eguna hartu zuen.
- Euskal Herrian, Jai hauen ardatza (bai Jentilen garaian, bai Kristau garaian) Olentzero gaua baldin bada, jatorrena, opariak ere Gabon Gauean egitea litzateke, (oparirik egin behar bada).

Antton Kazabon

HATZAK BETE LAN

HIRUGARREN MAILAKOEN IRTENALDIA

Zeraingo museoa, Segurako animaliak eta Loiolako ugaztunen arrastoak ikusi genituen gure irteeran.

Gelan ikasten ari garen gaia "animaliak" denez, urriaren 30ean egin genuen ibilaldi zoragarri hau.

Lehenik Segurako San Andres baserrira joan ginen.

Bertan azeriak, basakatuak, perikitoak, azkonarra, indioilar erreala, hontzak, trikua, ahuntz ipotxak (argazkian agertzen dena) e. a. ikusi genituen.


Ondoren Zeraina joan ginen. Bertan bazkaldu eta gero herri museora igo ginen. Han diaporama (Zeraingo biztanleak eta



bizimodua) erakutsi ziguten eta baserrieta-ko tresna zaharrak.

Azkenik Loiolako kultur etxean, Euskal Herriko ugaztunen arrastoen erakusketa ikusi genuen: sagu zaharrenak, otsoare-nak, basakatuarenak, etxeko katuarenak, erbiarenak, untxiarenak e. a.

Neka-neka eginda, poz-pozik autobusa hartzera gindoazela Oiartzunera itzultzeko, bat-batean, baloi bat aurkitu genuen eta ikastolara ekarri genuen.





Jakingo duzuen bezala, azaroak 11 San Martin eguna da eta garai honetan txerria hiltzen da baserri askotan. Nik txerri bat daukat, hobeto esan, aita eta biok txerri bat erdi bana daukagu. Aita joan zen erostera baserri batera: txerri-


kume bat zen orduan, besotan hartzeko modukoa. Txabola batean jarri genuen bizitzen eta baserriko behiak zituen bizilagun. Bizimodu ederra izan da gure txerriarentzat: jan eta lo besterik ez du egin. Bizimodu horrekin potolotu egin da eta orain baserrian izan den txerririk potzoloena da.

Gabonak aldera tokatuko zaio gure txerriari bere San Martin eguna. Kontatuko dizuet piska bat nola hiltzen dugun txerria: lehendabizi "S" baten antzeko gantxoaren mutur bat sartzen zaio kokotz azpitik eta

SAN MARTIN EGUNA

ondoren beste muturra atzeko hanketik engantxatzen zaio (ikusi nolakoa den gantxoa argazkian). Lepotik labaina sartu eta odola ateratzen zaio hustu arte. Odol horrekin odolkiak egiten ditugu. Esan beharra dago gantxoa sartu orduko txerria garraiska hasten dela hil arte. Jende guztiak ezin ditu aguantatu garraisi hauek, pena ematen die txerriak, baina odolkiak jaterakoan oso gutxi gogoratzen dira garraisi horietaz.

Argazkian ikus dezakezue zein eder egiten diren txerriak eta imajina dezakezue zein goxoak egon daitezkeen San Martin egunaren ondoren.




HATZAK BETE LAN



Xaboi
 Mañiko
 Zure Betiko
 Salbazio

-Etxekoan dutek adi egon eta erosi artoz arte-
nakoak Xaboi mañikoa. Orain en dugu eskur edo abea-
doran gribidu behonik xaboi honek boketik gribitien
du eta. Knapa oso-oson garbie utziako duen, gaurua
honek suahinantea eta guntzi dutek.

Ena erosi artoz!



Superita Leta
 Ikosteko plaspia

Hala, honek lau botai ditu eta horrela guntziantean
 dute: lehenengo botaiak ikosteko eramatean zaitu, bigarrenak lagunen
 telefona eta dikiu; hirugarrenak, ondu bakoitean zai arlo
 duen erate die; lauugarrenak, adieraztean, erateak trukean
 dikiu.

Oso praktikoa eta modernoa da!



Eros ezazu!
 Eros ezazu!



IKASLE OHI BATEN IRITZIAK

Gaur egun Haurtzaro ikastolan BBB erabat finkatu eta sendotua dugu; beraz, bertako ikasleek 17 urtera arte gure artean, herrian bertan, geratzeko aukera dute. Baina hau ez da beti horrela izan. Izan ere, orain lau urte irten zen Haurtzaroko BBBko lehenengo promozioa.



Hasierako urte haiek gogoratzeko, eta hemendik kanpora gure ikasleak nola ibili diren jakiteko, 2. promozioako Harriet Garai ikasle ohiarengana jo dugu.

—Kaixo, Harriet, aspaldiko hori!

Zer moduz eta zertan zabilta orain 3 urte ikastola utzi zenuenetik?

- Gaur egun Bilbon ari naiz ikasten, Leioako Kanpusean. Geologia ikasketak egiten ari naiz eta aurten 2. kurtsoan nago. Bilbon bizi naiz astean zehar, eta asteburuetan Oiartzuna bueltatzen naiz. Bost urteko karrera da eta, beraz, oraindik geratzen zaizkit urte batzuk Bizkaia inguruan.

—Kontatuko al zeniguke horren aurreko zure ikasle esperientzia?

- Oiartzungo haur asko bezala, ni ere Haurtzaro ikastolan ikasitako mutila naiz. Hiru urte nituela hasi nintzen eta 17 urterekin bukatu nuen

Haurtzaro ikastolako nire “ikasle ibilaldia”. Haurtzaro ikastolan ia 15 urte igaro ondoren jende ugari eza-gutzeko aukera izan nuen; horien artean, noski, andereño eta maisuak. Hainbeste urtetan ikastola berean ikasi izanak gauza on asko ekarri zizkidan, eta horien artean bi gauza azpimarratuko nituzke: alde batetik, nola ez, lagunak, baina ez soilik ikastolako lagun arruntak, hori baino zerbait gehiago, hitz gutxitan esateko, BETIRAKO LAGUNAK. Eta beste aldetik, irakasleenganako ikuspegi desberdina, ikastolan irakasleak gure mailan zeuden lagunak ziren batez ere (ez gu baino gehiago zirela uste zuten pertsonak, nahiz eta alde batetik hala izan).

—Zer eragin izan du zure bizitzan Haurtzaro ikastolan ikasi izanak?

- Haurtzaro ikastola Oiartzunen bertan egoteak eta txikitatik hitz egiten nuen hizkuntzan klaseak emateak asko erraztu zizkidan gauzak. Baliteke jendeak pentsatzea hainbeste urte Oiartzunen igaro izateak gero ez zidala batere onik ekarriko kanpora irtetean, baina hori ez da horrela. Jendearen ideia izan da beti 8. mailara arte ikastolan semeak eduki eta gero, hortik geroiko ikasketetan inguruko herri edo hirietara bidaltzea, han ematen den heziketa herrikoa bertakoa baino hobea dela pentsatuz. Baina guk badakigu, “urrutiko intxaurrak hamalau”, gerturatu eta lau BBB bukatu ondoren Orereta ikastolan egin nuen UBI delakoa. Han frogatu ahal izan nuen arestian aipatu dudana. Gaur egun Unibertsitatean ari naiz ikasketak burutzen eta nola ez, 15 urtetan zehar Haurtzaro ikastolan

GU ERE KAZETARI

pasatako heziketak eragina dauka eta izango du ikasketa horietan. Alor askotan nabaritzen dira eragin horiek: klaseko jarreran, ikasteko gogoan, irakasleenganako jarreran... Honekin ez dut esan nahi unibertsitateko beste lagunak baino hobea naizenik edo haiek baino koefiziente intelektual handiagoa dudarik. Ezta gutxiagorik ere. Baina ez pentsa txarragoa edo tontoagoa naizenik herri bateko ikastolan nire ikasketetako 15 urte igaro izanagatik. Ez horixe.

—Bukatzeko, gaur egungo ikastolako ikasleei aholkuren bat emango al zenieke?

- Azken balorazioa egiterakoan gauza bat aipatuko nuke, batzuek kontseju gisa har dezaketena, baina ez da



horrelako ezer. Nire ustetan, ikasleek lan intelijentea egiten saiatu behar dute, hau da, ez da kuestioa egunero bost ordu sartzea, baizik eta bat edo agian bi, baina egiten dena ongi ulertuz eta lanari probetxu onena ateraz.

—Ederki, Harriet. Eskerrik asko zure oroitzapen maiteenak eta esperientzia berriak guri helarazteagatik. Guztioi lagungarri izango zaizkigulakoan, nahi duzun arte.

IRATZARGAILUA

Tirrin! tirrin!
Jo du ordulariak.
Lotan nago, lo goxo goxo
lo...
Tirrin! tirrin!
Berriz ere ordulariak
eta ni lo.
Tirrin! tirrin!
Esnatu naiz hirugarrenean,
Tirrin! tirrin!
Lugarrenean lotara.
Zuk ni iratzar nahi baina ezin,
ametsetan murgildurik nagoen bitartean
lotan nago, lo goxo goxo.
Lo...
Tirrin! tirrin!
Zure mailukada eta ikaragarri
baina aldi berean eskergarriak.
Iratzergailu madarikatua!
Setosoa zera zu,
beti tirrin tirrin
egunero berdin
baina beti laguntzen didazu.

Garikoitz Arabolaza

"EZIN IHES EGIN"

Gaitz bat daukat
badakit.
Gaitz larri bat daukat
badakit,
baina besteak bezalakoa naiz
eta hori jendeak ez dakiela dirudi.
Nire gorputzean barrena,
odol gorri eta kutsatua dabil
noraezean kutsatua
kutsatua bai, baina gorria
besteena bezalakoa
gorria, sutsu eta bizitzeko gogoz
aurrera jarraitzeko asmoz.
Orain konturatzen naiz
bizitzaren balioaz.
Lehen egunak egaka
ziztu bizian zait!
Astelehena zait!
Astearte zait!
Eta orri bat gutxiago egutegian.
Gaur, umeak jolasean
herriko plazan
eta ni, beraien lekuan egon nahian.
Edozer gauza
hori da nik emango nukeena
lehengora bueltatzeko.
Ezinezkoa ordea.
Ezin ihes egin jada
nire barrua
minutuz - minutu
orduz - ordu
egunez - egun
deuseztuz doanari.
Nahi baina ezin.
Ezin ihes egin.

Itziar. B



HARRI BELTZA KOEI ELKARRIZKETA.

Kaixo, lagunak. Gu BBB1eko ikasleak gaituzue eta honako lerro hauetan, HIESA-ren gaiari zukua atera nahian prestatu genuen lantxoaren berri eman nahi dizuegu, informazioa denoi interesgarri izango zaizuelakoan.

Gaisotasun honen inguruan gehiago jakiteko, Oiartzungo HARRI BELTZA elkarteko partaide batengana jo genuen. Hau, gure eskaerari erantzunez, beste kide batekin klasera azaldu zitzaigun eta bertan inkesta bat egin ziguten. HARRI BELTZAKo Elias eta Mirari izan ziren gure zalantzak argitu eta informazio egokia eman zigutenak. Hona hemen jasotako ondorioak:

-Zer da seropositibo izatea? Berdinak al dira hiesa edukitzea eta seropositibo izatea?

Ez. Seropositiboa, odolean hiesaren birusa (GIB) daraman gizakia da. Baina seropositibo izateak ez du esan nahi hiesa duzunik, baizik eta garatu gabeko birusa duzula, lotan dagoena. Birus hori gure bar-

neko defentsak indargabetzen joan daiteke eta agian orduan ageriko da gaisotasuna.

Bestalde, ez ditzagun seropositibo eta zero positibo izatea nahastu. Azken hau jaiotzetik edukitzen den odol mota bat besterik ez da.

-Zein dira GIB birusa kutsatzeko bideak?

Ez daude kutsatzeko modu asko, hiru bakarrik: Lehenengoa, kutsatutako odolaren bidezkoa, adibidez xiringak elkar trukatzean. Bigarrena, sexu harremanak babesik gabe edukitzea da, baita ahoz masturba-tzean ere. Arrarogoa izan ohi da emakumeak gizona kutsatzea alderantziz baino, baina gertatzen da. Hirugarrenik, amak semeari haurdunaldian edo erditze garaian kutsa diezaioke birusa eta baita bularra emanez ere.

-Nola babes gaitezke, beraz, hiesaz?

GIB transmititzeko bideak ezagunak direnez, babesteko bideak errazak dira: Odolari dagokionez, batetik, tresna ebakor eta zorrotzak edo xiringak ez konpartituz, bakoitzaren higienarako tresnak (bizarra kentzeko kutxilak...) ez konpartituz eta bestetik, transfusiotan kontuz ibiliz edo txerto-ren bat hartu behar duzunean xiringa berria dela ziurtatuz.

Sexu harremanetan, prozesu guztian zehar preserbatiboa erabiliz.

Azkenik, GIBdun emakumeei dagokien ez, haurdun ez geratzeko aholkatzen zaie baina, hala ere, hau azken batean euren esku dago.

-Nola jokatu behar da hiesdun edo seropositibo batekin?

Beste edozein pertsonarekin bezalaxe. Lasai, ez zarete kutsatuko bere ondoan

GU ERE KAZETARI



egoteagatik, eta gustoko baduzue, ezta muxukatu edo besarkatzeagatik ere!

-Gu seropositibo bagina, nola jokatu beharko genuke?

Ez duzu pentsatu behar gutxiago edo desberdina zarela baina kontuz jokatu behar duzu. Lehen-lehenik, zure gaisotasunaz jabetzea eta ohartzea da. Asko zaindu behar duzu, zeren ez da hiesaz hiltzen baikik eta defentsa gutxi dituzunez, katarro sinple bat edukitzetik gaisotasun larri izatera irits daitekeelako. Bestalde, sexu harremanetan neurriak hartu behar dituzu baina gainerantzean, bizitza normal eta osasuntsua egin.

-Jendeak izaten al du beldurrik hiesdu edo seropositiboekin ibiltzeko?

Bai, jendea ezjakintasunaren aurrean izutu egiten da. Ez ditugu onartzen, baztertu egiten ditugu. Baina beste lagun bat gehiago bezala hartu behar ditugu.

-Nora jo daiteke informazio edota laguntza eske?

Lehenik, mediku, familia eta lagunak hor izango dituzu laguntzeko prest. Eta noski,

HARRI BELTZA bezalako elkarteak ere hor daude informazio gehiago emateko.

-Zer diote gaur egungo estatistikek, arazoa larriagotzen ari al da?

Lehen baino mantoago badoa ere, hiesa hedatuz doa, gero eta seropositibo gehiago dago. Baina ez zaie kasu gehiegi egin behar zifrei, garrantzitsuagoa da hiesdunari laguntzea. Gainera, azken finean, estatistikek gora ez egitea norberaren esku dago: gai honen aurrean hartzen dugun jarrerak baldintzatuko du.

Ohar hauen guztien bidez informazio baliagarria jaso genuen guztiok eta horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Harri Beltza elkarteari eta bereziki, Elias eta Mirariri, gu jakinaren gainean jartzera etorri zirelako. Agur bero bat.





GALDE-ERANTZUNAK

Oso azkarra al zara?

Galdera bakoitzak hiru erantzun ditu. Hoietako bat zuzena da eta beste biak okerrak.

1.- Zein da Pikabearen zenbakia?

- a.- 5
- b.- 15
- c.- 6

2.- Zein izan zen aurreko ligako "Pitxitxia"?

- a.- Pitz
- b.- Milatovic
- c.- Peternach

3.- Zein da hauetatik moto marka?

- a.- Ford
- b.- Motorini
- c.- Audi

4.- Zein da Ronaldoren zenbakia?

- a.- 8
- b.- 9
- c.- 10

5.- Nor da hauetatik arbitroa?

- a.- Lopez Nieto
- b.- Kodro
- c.- Irureta

6.- Euskal Derbian nor bota zuten kalera?

- a.- Urrutia
- b.- Guerrero
- c.- Etxeberria

7.- Zein ekipotatik fitxatu zuten Romario?


- a.- Boca Juniors
- b.- Flamengo
- c.- River Plate

8.- Zein da, estatu mailan eta lehenengo mailan, futbol zelairik haundiena?

- a.- Camp Nou
- b.- Santiago Bernabeu
- c.- Mestalla

LAUKIEN JOKOA

Joku hau bien artean jolasteko da. Bakoitzak marra bat egin behar du puntutik puntura laukia isteko. Lauki gehien isten dituenak irabazle.



NAHASTE BORRASTE



LETRA NAHASKETA

Aurki itzazu hamar txori izen desberdin.

1.- LBEAXNAGTI

2.- TRIRUEOARDRXN

3.- KIPRURAATI

4.- OZAOZ

5.- SOESAKINO

6.- IKAM

7.- AEARN

8.- ITOXA

9.- EPRKITIOA


10.- ABELE

LETREN ERRUEDA

Aurki itzazu, edozein norabideetan, hiru hitz. Hitz horiek aurkitzeko jarraitu beharreko baldintzak hauek dira:

- Hitza ez duzu zuzenean irakurriko.
- Hizki bat irakurri ondoren, bi irakurri gabe utzi behar dituzu

Horrela jarraituz hitak aurkituko dituzu.






NAHASTE BORRASTE

28

HARRAPAZAK

ASMA EZAZU ZENBAT BOROBIL DAUDEN



NAHASTE BORRASTE



MEZUA HARRAPATU

Gure jokuan ikur hauen bidez, mezu sekretua harrapatu behar duzu. Ikur bakoi-tzak bere hizkia dauka. Orduan, itzuli ezazu gure mezu sekretua.

A	D	H	O	Z	I	N	K
*	☀	△	□	○	⊗	⌚	<

S	R	U	T	J	!	—	.
>	C	)	▨	X	+	~	•

△	*	⌚	<	*

○	□	<	□	<	□	C	*	⊗

△	*	⌚	<	*

☀	C	○	)	•

X	*	~	X	*	~	X	*	+



ERREZETAK

MANTEKILAZKO PASTAK

Oporrak hastekotan egongo gara Txinpart aldizkaria eskuratzen dugunean. Horregatik errezeta erraz bat proposatzen dizuet sukaldean gozatu eta jaten ere goza dezazuen. Nori ez zaizkio pastak gustatzen? Eta norberak egindakoak ez al dira munduko onenak? Ba, orduan ...

OSAGIAK

- 100 g azukre
- 200 g mantekila
- 300 g ogirina

PASTAK NOLA EGITEN DIREN

Irina pasadoretik pasa koskorrak kentzeko, eta ontzi batean jarri. 100 g azukre bota eta nahastu. Mantekila pusketak txikiak erantsi. Gero hatzez dena elkartu eta mantekila pusketak desegiten joan. Maza bat lortuko duzu, eta zure eskuak garbi-geratzean, maza prestatuta egongo da. Bildu pasta zilarrezko paperan eta hozkailuan sartu.

Mahaiari eta arrabolari ogirina igurtzi. Maza zabaldu zentimetro erdiko lodiera lortu arte. Formak egin (eskuz edo kortapasaz) eta aurrez berotutako labean (150º tan) sartu urre kolorea hartu arte. Labetik atera.

Nahi izanez gero pastak apaindu daitezke txokolate berotan sartuz, edo labean sartu aurretik gereziak jarritz.

EGILEA: GAIZKA GALDOS
D.B.H. 1.MAILA

ZURRUPUTUNA (ZURRUKUTUNA)

Olentzero gaueko afari tradizionala

-Lau lagunentzat-

Osagaiak:

- Zopako ogi bat.
- Litro bat ur.
- Lau baratzuri ale.
- Olio piskat.
- 200 bat gramo bakailu.
- Lau arrautza (nahi izanez gero)
- Sua xuabe-xuabe.

Denbora: Guztira, ordu bat irakiten (Gaina egin arte)

PROZEDURA:

- Lau baratzuri aleak oliotan jarri ontzi batean.
- Baratzuriak erre baino lehen, zopako ogia txikituta botatzen joan oliotan ongi gozatuz.
- Ondoren, ur irakina bota eta dena nahasten joan, zopako ogi pusketak xehetu, papurtu arte.
- Hori egindakoan, beratutako bakailu xehetua nahastu.
- Nahi izanez gero, lau arrautz bota gainera, zurituta bereholaxe.

ON DAGIZUELA !!!!

Oharra: Zurruputuna edo zurrukutunaren ondotik, arkumea, legatza, angulak edota beste zernahi ere jan daiteke.

Errezeta, Koskoteneke amona Joxepak emana.



HAURTZARO IKASTOLA



fundazioa
fundación















